

Igeri egin, jolastu... eta irakurtzeko aukera

Irati Urberuaga. Bilbo.

Bilbon eguraldi lainotua bada ere, jende ugari dabil Txurdinagako igerilekuetan. Lau daude Txurdinagako kiroldegian, eta belarretan egoteko leku zabala horien inguruan. Irakurketa bultzatu nahian, liburutegi txiki bat jarri du Bilboko Udalak. Denbora pasatu eta udan hiriaz goatzeko aukera da Txurdinagakoa.

Goizean lasai ibil daiteke Txurdinagako kanpoko igerilekuetan. Bego Zurrok, adibidez, nahiago izaten du goizetan hurbildu, eta ia egunero joaten da igerilekuetara bere bi umeekin: Arratsaldean etortzea ez zait gustatzen, jendez gainezka egoten da-eta igerilekua. Raul Domingo ere sarri joaten da igerilekura, igeri egitera. Goizetan egiten du igeri, beti: Eguraldi ona badago goizetan jende asko egoten da, baina arratsaldean jende gehiago egoten dela uste dut.

Eguraldiak asko lagundu ez arren ere, beti dago norbait Txurdinagako igerilekuetan. Ume ugari ikusten da, eta denak gora eta behera dabiltza: uretan, karta jokoan... udalekuetan daude. Bilboko Udalak antolatzen ditu hiri udalekuak eta ia goizero etortzen dira umeak igerilekuetara. Sei eta hamabi urte bitarteko umeak dira, eta bilbotarrak dira denak. Goizetan autobusa pasatzen da ibilbide bat eginez eta Bilboko hainbat tokitako umeak hartzen ditugu, azaldu du begirale batek. Euri apur bat hasi du, eta begiraleak artzainen antzera jardun dute ume-artaldea batzen. Zorionez, tanta batzuk baino ez dira izan, eta eguzkia irten da berriz. Handik gutxira igerilekuak umez bete dira berriz.

Umeek uretan ibiltzea atsegin dute, baita uretatik kanpo ere. Udalak liburutegi txiki bat atondu du igerilekuan, eta tailer batzuk ere egiten dituzte. Udalekuko umeak komikiak irakurtzen dituzte sarri, eta tailerretan ere parte hartzen dutela aipatu du begiraleak: Aurreko egunean hatzaparretan sartzen diren txotxongiloak egin zituzten. Margotzen ere ibiltzen dira bertan. Zuriñe Briongosen alaba ere margotzera joaten da: Sarri liburuak hartzen ditu irakurtzeko eta nik ere batzuetan hartu izan dut zer edo zer. Denen gusturako dago: egunkariak, kirol aldizkariak, moda aldizkariak, ordenagailuei buruzkoak... eta nola ez, liburuak, bai umeentzat, eta baita nagusientzat ere.

Oporretan Euskal Herritik kanpora jende ugari joaten da, baina bertan ere pertsona asko geratzen dira. Modu batera edo bestera izan, Bilbon, Txurdinagan, etxetik oso urruti joan gabe hartzen dute askok atsedena. Zuriñe Briongosek ez daki kanpora joango den edo ez: Oraingoaz, hemen geratuko gara, umeak joan dira jada udalekuetara, baina gu ziurrenik hemen inguruan ibiliko gara. Raul Domingo ere Euskal Herrian geratuko da, egunkaria hartu eta adi-adi irakurtzea atsegin du, igerilekuan igeri egin eta gero. Patxadaz, goiza aprobeztatuz, etxetik ez oso urrun.